



Suziriarekin abiarazi dituzte San Joan jaiak

TOLOSA ▶ Tolosa-Aralar
saskibaloitako taldeko jokalariek
bota zuten udaletxeko balkoitik

GAUR ▶ Koadrila Eguna izango da;
81 koadrilek eman dute izena
Zerkausiko bazkarirako ▶ 4-8

ARESO ▶

Euskal
Herriko
Txapelketako
finala gaur

640 kilotako finalean
Areso taldea
lehiatuko da ▶ 11

MAIXABEL ARRIETA ▶
VILLABONAKO ALKATEA



I. GARCIA

«Ezker
abertzalearen
emaitzarik
onenak dira»

«Oso itxaropentsu»
azaldu da ▶ 2



Suzirian jendetza bildu zen, hiru eguneko festa giroa iragarritz. ESTI EZEIZA

Europar Berrazterekin
Hm.O eta auzerako autoen
LIKIDAZIOA ELGOIBARREN

MARKA GUZTIETAKO 180 AUTO ERAKUSKETAN
4x4, industrialak, coupeak, monobolumenak, berlinak, familiarrak...

Nabigatzailea OPARI

AUTO GARBIKETA
DOAN

EKAINAK 30
Goizean 10:00 - 14:00
Arratsaldean 16:00 - 19:00

UZTAILAK 1
Goizean 10:00 - 14:00

LEABURU ▶

Udala
«bahituta»
dagoela salatu
du EAE-ANVk

ERREDAKZIOA

Leaburuko EAE-ANVk herriko Udala «bahituta» dagoela salatu du. Bide Berriak hautesle elkarteak joan den astelehenean hartutako erabakiarekin, Udala «egoera larri batean» aurkitzen dela zehaztu du. Egun horretan osoko bilkura egin zen eta Bide Berriak zerrendako hiruk zinegotzi kargua hartu zuten baina alkate postuari uko egin zioten. Horrela, alkate-rik ez dago egun Leaburu-Txaraman.

Udalak egunerokotasunean alkatearen sinadura behar duela gogorarazi dute EAE-ANVtik eta Bide Berriakeko ordezkariak «zentzu gabeko» erabakiak hartu dituztela diote. «182.2 artikuluz ez direla fidatzen esan duete eta badaudela beste bide batzuk diote. Aitzakiak dira herriaren hitza ez errespetatzeko eta EAE-ANVk lortutako alkatetza bahitzeko. Beraien eskuetan aurkitzen gara».

EAE-ANVk salatzen du «bere ordezkariak» eskuratzeko aukerarik ez dutela eman eta «oraindik ikusteko dagoela esan zuten bezala herriaren hitza errespetatuko duten». Bide Berriak «ardura falta» leporatzen dio eta egoera horretan «herria galtzaile» ateratzen dela gaineratzen du. Noiz arte egotea pentsatzen duten egoera horretan galdegiten dute.

«Lehenbailehen» elkartzeko deia luzaten die EAE-ANVkoek Bide Berriak hautesle zerrendakoei, «herriaren hitza eta borondatea errespetatuz Leaburu-Txaramako Udala osatu dezagun herritar guztien onerako», eta «gai pertsonalak alde batera» uzteko eskatzen dute.

MAIXABEL ARRIETA ▶ VILLABONAKO ALKATEA

«Ezker abertzaleak herrian
atera dituen emaitzarik
hoberenak dira oraingoak»

«Oso itxaropentsu» dago Maixabel Arrieta eta udal gobernu berriak «lan handia eta txukuna» egingo duela uste du

IMANOL GARCIA

Maixabel Arrietak (Villabona, 1946) berriro hartu du alkate kargua Villabonan, 1999-2003 legealdian alkatetzan izan ondoren. Bere alderdiak, EAE-ANVk, 13 zinegotzietatik 6 lortu zituen eta, beraz, gutxiengoan gobernatuko du.

Hauteskundeak irabaztea espero zenuten?

Baguenen, bai, emaitza txukunak lortuko genituenaren itxaropena, eta ondorioz herrian lehen indarra izateko lehia es-tua egongo zela uste genuen. Ez genuen espero, ordea, halako diferentziarekin irabaziko genuenik, bigarren geratu denari 259 bozka ateratzeaz gain, gehiengo osotik 67 bozketara geratu baikara.

Halere, orain zortzi urte lortutako boto kopurua baino gutxiago lortu dituzue.

Gure ustez oraingoan izan dira ezker abertzaleak Amasa-Villabonan inoiz atera dituen emaitzarik hoberenak. Egia da duela zortzi urte 96 bozka gehiago izan genituela, baina oraingoan ia 700 bozka gutxiago egon dira, eta abstentzio horrek alde guztiei eragiten die. Kontua da ordea, duela 8 urte boto-emaleen %37,55 ginela, eta oraingoan berriz %43,69a, sei puntu gora beraz. Oso gustura gaude, sekulako emaitza iruditzen baitzaigu.

Hauteskundeen irakurketa orokorra egin ezazu.

Bistan da galtzaile nagusia EAJ izan dela, eta zergatiak ugariak izango badira ere, nik bi azpi-



I. GARCIA

marratuko nituzke. Batetik, badirudi herritarrek ez direla gustura geratu azken lau urte hauetako udal kudeaketarekin, hutsune nabarmenak ikusi baitituzte. Baina bada beste arrazoi bat, nire ustez eragin handiago izan duena, eta erabat politikoa da. EAJren oinarri abertzaleek kezka eta etsipen handiz ikusten dute euren zuzendaritzaren ibilera politikoa. Espaniaren barruan eroso bizitzeko Imazen asmoa ez da begi onez ikusten sektore independentisten artean, eta horrek ordaina pasa dio EAJri. Gainontzekoen emaitzetan ez da ustekaberik izan herrian. PSE-EEk PPri terrenoa irabazi dio eta EB-Aralar koalizioak

bat atera du, burua erakusten hasten delarik.

Orain berriro zaude alkate postuan. Nola ikusten duzu zure burua?

Duela zortzi urte ezjakinean sartu nintzen, baina orain badakit udal batek zein mugak eta aukerak dituen. Egia esan behar badut, poza sentitu dut herritarrek berriro eskaini ditadaten konfidantzagatik, eta horrek lanerako ilusio handia sortzen du.

Gobernu taldean jende berria dago.

Mementuz gogo handiz ekin diogu lanari. Zuk lehen esan bezala, nik aurretik esperientzia badut, eta besteek ez, baina gure udal taldearen aban-

taila bat zera da, zinegotziaz gain gure inguruan kolaboratzaile talde egonkor bat dugula, eta dagoeneko lanean hasiak direla. Lan handia eta txukuna egingo dugula iruditzen zait. Oso itxaropentsu nago.

Lau urte hauetarako zein izango dira zure alderdiaren proiektuak?

Oraindik erabaki handietan ez gara sartu, udal barneko egoera nolakoa den aztertzen ari baikara. Uztailaren lehen edo bigarren astean osoko bilkura deituko dugu, eta hor ondoongoak erabakiko dira: osoko bilkurak eta tokiko gobernu batzarrak noiz egin, lau alkateordeen izendapena, batzorde informatiboak zehaztu, Udala beste organu batzuetan (herrikoak zein eskualdekoak) ordezkaturiko pertsonak aukeratu eta zenbat liberazio sortuko diren eta zer nolako soldatarekin zehaztu. Horretaz gain, gure lehen lanak Santio jaiari begirakoak izango dira.

Eta horren ondoren?

Gu Udalera sartu aurretik Hiri Ordenazioko Plan Orokorra onartu zen, baina oraindik alegazioak eta moldaketa proposamenak egin daitezkeenez, udan zehar goitik behera aztertzeko asmoa dugu. Gure programan planteatuko diren hainbat atal Plan Orokorraren horretan txertatu beharko dira, baina aurretik herritarrek kontrastatuko ditugu, udazken hasieran, eta segidan onartze definitibo batera abiatuko ginateke. Gainera, urte amaiera arte beste udal legealdi batekin eginiko aurrekontuak kudeatu beharko ditugu, eta hortik aurrera hasi ahal izango gara gure kriterioak aplikatzeko.

Ez duzue gehiengo osoa. Horrek zertan eragin dezake?

Beti edukiko du eragina, ezin-go baitugu nahi dugun guztia aurrera atera. Horrek ez du zertan txarra izan behar gainontzeko taldeen jarrera konstruktiboa eta laguntzekoa bada. Aldiz, jarduera frenatzeko eta blokeatzeko jarrerak hartzen badira, herriarentzat kaltegarri izango litzateke, eta salaketa publikora joko genuke.

EAE-ANVk hainbat herritan ezin izan du aurkeztu. Nola ikusten duzu egoera?

Haserre. Hauteskunde guztiz antidemokratikoak izan dira, benetako putxerazo bat. Eta salbuespen oso duin batzuk kenduta, herri gehienetan ez da herritarren borondatea errespetatu. Herriak nahi ez eta alkatetza eskuratuko duten kasuak ugari dira baita eskualde honetan ere: Zizurkil, Ibarra... Lotsa gutxi behar da horretarako.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Alokatzeko (Tolosa),
Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa),
Garajeak, Araba etorbidean irekia eta San Frantziskon ixia.
Alokatzeko, Pabilioi industrialak, Leaburuko bidean.
Salgai (Tolosa),
Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa), Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.
Salgai (Tolosa),
Garajeak Leidor azpian.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KULTURA ▶



Iragan larunbatean eginiko Udaberriko belaualdien erromeriako une bat. N. LATABURU

Udaberri taldearen mende erdia bildu dute argitalpen batean

48 orrialdeko lan honetan, dantza taldearen historia, argazkiak eta bitxikeriak bildu dituzte, besteak beste

IÑIGO TERRADILLOS

Asko dira Udaberri Dantzari Taldeak urtean zehar antolatu dituen ekitaldiak bere sorreran 50. urtemuga dela eta; are gehiago, noski, 50 urte horietan bizi izan dituztenak. Eta horiek guztiak bilduta edukitzeko helburuarekin argitalpen bat prestatu dute. Hain zuzen ere, atzo egin zuten argitalpenaren aurkezpena Tolosako Gorrotxategi konfitegian, eta hainbat ale banatu zituzten bertan.

48 orrialdeko lan hau aurreko larunbatean taldeko belaualdi guztiak dantzan jarri zituen kalejira ikusgarriaren ostean dator. Aldizkari formatoa du, eta Udaberriekin erlazionatutako hainbat gai jorratzen dira: taldearen historia; sortzaileei eta belaualdi desberdinetako ordezkariak egindako

elkarrizketak; zenbait herritar ezaguni egindako inkesta; adituen iritzi artikulua taldeari, Bordondontzari eta dantzaren etorkizunari buruz; bertsoak; komikia; bitxikeriak; taldeko argazkiak; taldean izan diren partaideen zerrendak; urteurrenoko ekitaldien egitaraua...

HITZA laguntzaile

Argitalpenaren laguntzaile izan da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA, eta harpidedunek gaur eta bihar jasoko dute uren etxeetan. Horretaz gain, bihar goizeko prozesioan ere Udaberri doan banatuko du.

JOXEMI SAIZAR ▶ ARGITALPENAREN KOORDINATZAILEA

«Euskal kantak mantendu eta zabaltu ditu Udaberriek»

Joxemi Saizarrek (Tolosa, 1961) argitalpenean hartu du parte, bai koordinazioan, bai eta erredakzioan ere, taldeko hainbat kideekin batera.

Nondik etorri da argitalpena egitearen ideia?

Urtemugako ekitaldien baitan kokatu behar da lana. Udaberri talde oso emankorra izan da eta da, historia luzekoa eta hori guztia biltzeko premia zegoen. Lehendik ere badu dantza taldeak beste argitalpen bat, hain zuzen ere 25. urteurrenean ateratakoa.

Zer aurkituko dugu aldizkari formatoko argitalpen honetan?

Udaberriko historia azaltzen du. Salbador Garmendia eta Felix Galdona sortzaileei eta 5 belaualdietako ordezkariak eginiko elkarrizketak, bordondatzari buruzko artikulua, dantzaren etorkizunari buruzkoak, herriko arpegi ezagunei eginiko inkestak, argazki zahar ugari, bitxikeriak...

Zure partaldetza taldean nolako izan da?

Musikari bezala aritu naiz ni, 81etik aurrera. Ordura arte txistulariak bakarrak zeuden, eta txaranga osatu nahi zuten. Duela 10 urte arte edo hartu



L. MONTES

nuen parte, baina tarteka deitzen didate ekitaldi batzuetarako.

Nola aldatu da Udaberri?

Euskal kultura pizten ari zen garai zailetan sortu zuten taldea sakramentinoek. Susturriak eta estilo tradizionala mantendu ditu, baina agian prestatuagoak direla egungo ikuskizunak esan daiteke. Meritu handia du taldeak 50 urteetan hainbesteri dantzan irakatsi dielako.

Zer izan da taldearen apor-tazioa?

Euskal kantak mantendu eta munduan zehar zabaltu ditu. Bestalde, ikerketak ere egin ditu, eta horien artean garrantzitsuena bordondantzarena, Udaberriren ikurra dena, hain zuzen. ◀

urteurrena ▶

Juan Antonio Apaolaza Goia
II. Urteurrena

2005eko ekainaren 16an hil zen, 74 urte zituela.



Bere emaztea: Nikolas Estensoro; seme-alabak: Juan Mari, Axun eta Juanjo Aranguren; biloba: Irati; anai-arrebak: Ines (Joxe M^a Inbaustiren alarguna), Joxe (Aita beneditarra), Patxi (Aita beneditarra), Joxe Mari eta M^a Karmen Irizar, Maria Estensoro eta Pako Etxeberria, Prantxika Estensoro (Xanti Lasaren alarguna) eta Joxe Estensoro (apaiza); ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.
Bigarren urteurrenoko meza BIHAR, IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, Zeraingo ANDRE MARIA JASOKUNDEAREN parrokia elizan izango da. Aldez aurretik, mila esker.

ZERAIN, 2007ko ekainaren 23a

urteurrena ▶

1. urteurrena
Karmen Arruti Ugarriza
(Tomas Orbegozoren alarguna)

2006ko ekainaren 26an hil zen, Azpeitian, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Haren seme-alabak, bilobak eta gainerako ahaideak, haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela BIHAR IGANDEAN, eguerdiko 12:30ean, Azpeitiko Soresuko San Sebastian parroikia elizan egingo den urteurrenoko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

AZPEITIA, 2007ko ekainaren 23a

hilberria ▶

Karmen Urrutia Illarramendi
(Sebastian Hernandezen alarguna)

2007ko ekainaren 21ean hil zen, Azkoitian, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Bere seme-alabak: Iñaki eta Arantxa Albizu, Pilar eta Mikel Sudupe, Juan Jose eta Olatz Agirre eta Xanti; bilobak: Asier, Ion eta Eneiz, Izaro, Aitor eta Iñaki.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete arren etor zaitezela GAUR larunbata, arratsaldeko 19:30ean, Azkoitiko Amabirjinaren Jasokunde parrokia elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

charra ▶ Hilbeila Azkoitiko tanatorioan da. Errosario Santua arratsaldeko 19:15etan elizan bertan errezatuko da.
hilbeila ▶ Ugarte Kalea 3-3 D

AZKOITIA, 2007ko ekainaren 23a

hilberria ▶

Karmen Urrutia Illarramendi
(Sebastian Hernandezen alarguna)

*Amama buruan
amama oroimenean
zu aldentzean
gaua dugu bihotzean*



**Zure bilobak: Asier, Ion eta Eneiz,
Izaro, Aitor eta Iñaki**

AZKOITIA, 2007ko ekainaren 23a

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AISIA ▶

Atzo Tolosa-Aralarreko jokalariek eman zieten hasiera sanjoanei, eta astelehenera arte luzatuko dira

ESTI EZEIZA

Hasi dira, hasi dira sanjoanak, hemen dira. Suziriaren jaurti-kebarekin batera, eta kanpai hotsekin abiatu ziren atzo Tolosako jaiek. Festei ongietorria emanaz kaleetan barna ibili ziren buruhandi eta dultzaineroak. 19:00ak iritsi zirenerako jendez gainezka zegoen Plaza Zaharra festak ofizialki hasteko gogoz. Atzokoan mailaz igo diren Tolosa Aralar saskibalo taldekoak arduratu ziren suziri-pizteaz. Honen ondoren, ekitaldiz betetako egitarauari hasiera eman zitzaion.

Musika, dantza, jolasak, kirol jarduerak... izango dira egun hauetan Tolosan. Herritarren laguntzarekin, ez aspertzeko adinako egitaraua prestatu

baitute aurten ere jai batzordeko arduradunek.

Jaietako suziri ofiziala bota eta minutu batzuk beranduago txosnen irekierako ekitaldia gauzatu zuten Abastos plazan. Hemen ere pregoia irakurri zuten, eta jarraian trikipotea egi zuten bertsolarien laguntzarekin.

Trafiko aldaketak

Bihar 19:00etatik 12:30era jokatuko den Jose M^a Anza Memoriala dela-eta une jakin batzuetan ibilgailuarekin ezingo da hiriarren erdialdetik igaro. Bestalde, autorik gabe egon beharko dute San Frantzisko inguruak eta Foruen etorbideko eskubiko aldeak, haur parkea dagoen aldeak alegia.



Txarngak alaitu zuen txupinazoaren aurreko itxaronaldia. E. EZEIZA



Zerkausion 'Amama Pantxika' haurrentzako emanaldia. E. EZEIZA

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Karabana. Errioxako kanpin batean karabana bat alokatzen da, guztiz eroso. 669 70 68 70.

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Tolosan. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekuarekin. Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan, ikuspegi ederrak. 44.000.000 pezeta. 626 75 27 44.

Etxebizitza.

Alegian, guztiz hornitutako etxebizitza. Bizitzera sartzeko moduan. Interesatuak deitu 685 73 35 62ra.
Autoa. Renault Megane Gran Tour. 1.5 DCI. 100 zaldi. 44.000 kilometro. 63063 50 13.

LANA

Zaintzailea. Haurrak zaintzeko emakume euskalduna eskaintzen da. Deitu 687 32 68 77ra.



EGITARAUA ▶

GAUR

09:00. Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.

09:00. Beotibarren, Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskolak antolatuta, XVI. San Juan Zesta-Punta Txapelketa.

10:00. Usabal kiroldegian, igeriketa probak, XXXIX. San Joan saria.

10:30. Haurrentzat entzierroa; irteera Abastos plazatik.

11:00. Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik.

11:00. Bonberenea Txaranga kalez kale.

12:00. Tolosako Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Plaza Berrian. Egun osoan jokoak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia, eta abar. Txaranga eta dultzaineroak arituko dira ere.

12:30. Usabalen, koadrilen arteko Tolosa Kup areto futbol

txapelketaren finalak jokatuko dituzte.

14:30. Zerkausion, koadrilen herri bazkaria. Ondoren, DJ Bull, *Xanpetiki* dantza eta *Larrain-dantza*.

16:00. Txirindulariak, Agustin Urkola 2. urteko kadeteen proba, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta.

17:00. Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik.

18:00. Sortzez Garbia plazan haur ikuskizuna: Niko eta Periko.

19:00. Oriako Txaranga eta Mulambo taldea kalez kale.

18:30. Tolosako margolarien XLI. erakusketaren inaugurazioa, Txinparta elkartearen.

19:30. Udalbatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoi zetan parte hartzeko.

22:00. San Joan sua, Andre Maria plazan, Udalbatza bertan

dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldea eta Tolosako Musika Bandak joko dute. *San Joan* zortzikoa jo ondoren, Musika Banda abiatuko da. Jarraian, Hodeiertz abesbatza.

23:30. Su festak, 1. bilduma; Protecnia Zaragozana.

00:00. Berdura plazan kontzertua: Maddi Oienart.

00:00. Lopez Mendizabal pasealekuan Arantza eta Pantxo musika taldearen kontzertua.

00:00. Plaza Berrian Standar eta Audience musika taldeen emanaldia.

TXOSNETAN, GAUR

18:00. Globo gerra.

19:00. Txosnen irekiera txarngarekin.

20:00. Kazerolada *Jai herrikoi eta parte hartzaileen alde, pubkerazorik ez!* lelopean.

21:00. Afaria eta txobx! Gauean DJ Bull.

JAVIER UGARTE ▶ SUKALDE KONPAINIAKO KAPITAINA

JOXEMI SAIZAR

Azken urte hauetan sanjoanetan berrindartu den ekitaldia da eskopetarien alardea. Eskopetari konpainia beteranoeneko kapitain beteranoena Javier Ugarte tolosarrak bere iritzia eman du, garai bateko eta gaur egungo jaiak konparatzeko.

Noiz hasi zinen eskopetarietan ateratzen?

1960 inguruan, 17 urterekin edo. Gregorio Chinchilla izeneko bat (Francoren goardiakoa izana) aritzen zen jendea biltzen eta hark esanda hasi nintzen. Gorosabelen entsegu pare bat egiten genuen, armetan desfilatzen ikasteko eta ateratzen ginen, 18-20 lagun.

Eta nolako zen zuen partaidetza, oraingoarekin konparatuta?

Oso desberdina. Konpainia bakarra ateratzen zen, goizez bakarrik gainera, eta arratsaldean txaketa urdina kendu, alpargatak jantzi eta goizeko alkandora eta galtza zuriekin korporazioari makilekin arkua egiten genion Arrameleko bezperetara eta Zumardi Handira aurrekura joandakoan eta etortzerakoan. Baina dantzarik ez genuen egiten.

Eta nork egiten zuen bada?

Dantzari pare bat izaten ziren Aurrekuan, aurreko eta atzeko puntan, Erreberentzia eta Agurra dantzatzeko. Blas Lasa arduratzen zen dantzariak aukeratzeko eta gero Santos Tapia ere bai. Juan Ramon Insausti ere ateratzen zen dantzari bezala. Besteok Aurrekuan ateratzen genituen neskengana arrimatzen salatzen ginen, besterik ez. Orduan soineko berria estreinatzen zuten San Joan egunean.

Eta eskopetarien musika nork jotzen zuen?

Urte askotan Roman Tolosak jo zuen txilibitua eta beste norbaitek danborra. Zailena da danborrarekin oinez ibiltzen jotzea. Ez zegoen partiturarik eta berarengandik ikasi dute oraingok, baina orain bakoitzak bere erara jotzen du. Gero Sukalde bezala ateratzen hasi ginenean ere jo zuen gurekin.

«Gaur egun 13 konpainia eta ia 500 lagun biltzen gara»

1960 inguruan hasi zen Javier Ugarte San Joan jaietan eskopetari gisa ateratzen, eta egun oraindik jarraitzen du



JOXEMI SAIZAR

Eta geroago Benjamin Galiciak ere bai, parrokiako orkestran kontrabajoa jotzen duena.

Hori beheraka joan zen eta ia desagertzeaz egon zen. Orain berriz, berrindartu egin da.

Bai, gauza erakargarri gutxi zegoen eta gero eta jende gutxiago gelditzen zen herrian egun horretan. Elkarte bezala konpainia ateratzen hasi ginen eta gu izan ginen lehenak, Sukalde elkarteak, 1973an. Gero etorri ziren besteak pixkanaka (Batasuna 1975ean, Gure Kaiola 1976an, Peña Union 1977an, Lizardi 1984ean...) eta gaur egun 13 konpainia eta ia 500 lagun biltzen gara San Joan egunean. Ia ez gara sartzen Santa Maria plazan eta plaza Zarran. Horrek jende asko erakartzen du festara eta jendea

ez da jada kanpora joaten, lehen bezala. Guk lehenengo jantzia hartu genuen eta goizetik bakarrik ateratzen gara, orduan bezala. Gure Kaiolak ere gauza bera egiten du, baina beste 11 konpainiak arratsaldean ere ateratzen dira.

Neskak ateratzeko arazorik ez zen izan Tolosan.

Ez. Lehendabizi Lizardikoez eskatu zuten. Betiko arauak zein ziren esan eta ez da inongo arazorik izan. Geroztik neskak mutilen konpainietan sartzen joan dira eta konpainia berri gehienak mistoak dira hasieratik. Irun eta Hondarribiatik etorri zitzaizkidan ea nola egin zen galdetuz eta horixe erantzun nien.

Taldea osatzeko arazorik izaten al duzue?

Beno, gero eta zailago gure kasuan. Elkarteak bazkideak urteetan aurrera goaz eta elkarte bezala zaharkituta gelditu gara, ez dugu gauza handirik antolatzen. Aurten espero dut 30 lagun biltzea, baina bazkideak oso gutxi. Eskopeta lortzeko ez da arazorik izaten, nonbaitetik lortzen da.

Egun polita pasatzeko asmoetan beraz.

Bai, oso polita gelditu da San Joan eguna. Aurten, igandea izanik, agian gauza gehiegi izango dira batera.

Dietetika eta Belardenda
ZAINBERRI
Pablo Gorosabel, 6 • Tel.. 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

'ZURE UMEEN DENDA'
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak
zakuak • maindireak • ohe estalkiak
HAURDUNENTZAKO ARROPA-HAUR MODA 0-2 URTE
ONDO PASA SANJOANAK!
San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

Sam Kartazalak
Poltsak
Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 40 00 • Faxa: 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

ISASTEGI
sagardotegia
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 29 64
www.isastegi.com - isastegi@isastegi.com

SEGUROS BILBAO
Zumardi
aholkularitza integrala
San Joan festa zoriotsuak
opa dizkizu
Laskurain, 8 behe • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel/Faxa: 943 65 18 77

KIKATZA
PINTXOAK - BOKATAK
ANOAK
PLATER KONBINATUAK
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 13

FESTAK ONDO PASA!
TOLARGI
Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz
Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

Xirimiri
Txokolategia
Errementalari kalea, 40
20400 Tolosa
Telef. 943 67 52 23

AISIA ▶

JOXEMI SAIZAR

Jaia eta dantza betidanik uztarturik joan dira leku guztietan. Tolosako sanjoanetan euskal dantzek bere protagonismoa izaten dute, aurtan 50 urte bete dituen Udaberri Dantzari Taldearen eskutik behintzat.

1666ko udal agirietan agertzen dira euskal dantzen lehen aipamenak sanjoanetan. Bordondantzaren lehen aipamen idatzia 1713koa da. 1840ean Juan Inazio Iztueta famatuak dantzatu zuen Tolosako jai patronaletan. 1877an Ordiziako bi aurrekulari ekarri zituen Udalak. 1910ean aurrekulari txapelketa izan zen alkateak antolatuta. 1935ean Blas Lasak bere bordondantzari taldea eskaini zion Udalari San Joan egunean dantzatzeko kobratu gabe, baina Pio Zabalaren taldeak dantzatu zuen kobratuz. Lasa bera izan zen prozesioan dantzatzea proposatu zuena 1946an eta ohitura hori gaur egun arte mantendu da.

1957an sortu zen Udaberri Dantzari Taldeak, Xalbador Garmendia eta Felix Galdona apaiz sakramentinoek bultzatuta. Haur talde hura hazi zenean urte batzuetan parte hartu zuen Tolosako sanjoanetako prozesioan, bordondantzan eta aurrekuan. Tartean eztabaida ugari izan ziren Udaberri eta Udalaren artean, Espainiako banderaren koloreak ez zituelako eraman nahi makiletan eta alkandoran eta Udaberri bezala ez zirelako agertzen jai egitarauan. 1969an larruz

Bordondantza, Tolosako eta sanjoanetako ikurra

50 urte bete dituen Udaberri Dantzari Taldeak protagonismo berezia du sanjoanetan



Urtero San Joan egunean, San Juan plazan bordondantza dantzatzeko Udaberrikoek. JAIONE ASTIBIA

egindako jantziekin egin zuten bordondantza Udaberriko dantzariak eta zeresan handia izan zuen herrian. Handik aurrera urte batzuetan Tolosal-

deko beste herri batzuetako haur dantzariak eta beste kasu batzuetan Harkaitz Dantzari Taldeak egin zituzten sanjoanetako dantza saioak.

Eta 1979an, hilabete batzuetako ikerketa lan baten ondorioz, Udaberriko bordondantza «berritua» aurkeztu zuen sanjoanetan, gaur egun egiten den

bezalakoa: 25 dantzari taldea bere kapitaina eta zortzi banderilistarekin, jantzi berriena (deigarriena buruko painelua, txapela baztertuz), erraminta berria (alabardak) eta koreografia osatuagoa. Al-daketa horiek adituen aholkularitzarekin burutu zituzten eta quintasuna eman zituen ikuskizunari. Geroztik bordondantza protagonismo berezia izan du San Joan egunean eta Udaberri Dantzari Taldea arduratzen da bere antolaketaz, nahiz eta Tolosako bordondantzari bezala atara beti.

Eta Tolosan bakarrik egiten den dantza honetako partaideak izaten dira prozesioan eta aurrekuan dantzatzeko dutenak. Prozesioan San Joan zortzikoa Musika Bandarekin batera, eta Aurrekuan Gipuzkoako beste leku askotan bezalakoak: Agurra, Axeri dantza, fandangoa, arin arina eta biribilketa.

San Joan bezperako suan ere aspaldidanik egiten dira euskal dantzak, Musika Banda eta abesbatzekin batera. Eta hor ere urte askotan aritu da Udaberri, Gipuzkoako hainbat dantza eskainiz.

Eta azken urte hauetan, 1989an San Joan eguneko bi-deoa grabatu zutenetik, prozesioaren ibilbideko atarietan lizarrak jartzeaz ere arduratzen da Udaberri, solstizioko sineskerak paganoa berreskuratzeko eta indartuz.

Udaberriko esker, bordondantza Tolosako eta sanjoanetako ikurra bihurtu da, maila handiko ikuskizuna, alegia.



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxes: 943 65 29 38
tolosa@tolosa_redpeugeot.com

Expert berria





aldama_tapia
aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75
Faxes: 943 65 52 06

Foruen Etorbidea_7 • 20400_TOLOSA_Gipuzkoa
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com



argiketariak & igeltseroak eskaiolista & dekoratzaileak
iturkinak & pintoreak zoruak & leihoak
arotzak altzariak & sukaldeak

gremioen koordinazioa
Sanjoanek ondo pasa!

Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40

ILUSIO Kreditua | EUSKADIKO KUTXA

Ez utzi erdizka zure ametsak, bete itzazu gure ilusioen Sailean

KREDITU ILUSIOA ESKAINTZA

Epea Interes nominala **%5,96 U.T.B.**

1 urte:	%3,93
3 urte:	%5,13
5 urte:	%5,39
7 urte:	%5,50

Irekiera-komisioa: %1
Komisioa alde aurretik amortizatzeagatik: %0
Komisioa alde aurretik kitzatzeagatik: %0
Gutxieneko zenbatekoa: 9.000€

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutxaren bizitza-asegurua bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurrezpen, Aurreikuspen edo Pentisio Planetako beste produktuaren bat.

07-05-21etik aurrera egindako eragitetarako eskaintza, 10 milioi eurora iritsi arte. Berritua finantzatzeko eragiketarako alde batera utzita.



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

SANJOANAK ▶

Txosnagunea lehen aldiz sanjoanetan

Abastos merkatuan jarri dute gunea; hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte

IÑIGO TERRADILLOS

Aurten lehen aldiz txosna batzordeak «herrian hutsune bat» ikusten zuelako txosna gunea jarri du sanjoanetan, eta hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte, guztiak bertan edo bertatik abiatuko direlarik.

Txosna batzordearen ustez, «festa ofizialek egitarau zabala eskaintzen badute ere, ez dute herritarren arteko elkarlana eta parte-hartzea bultzatzen». Hala, euren aldetik urte guztian zehar lanean aritu ostean, «herritarrei gune berezi hau eskaini nahi diegu».

«Suaren inguruan dantza, parranda eta aldarrikapena» gustuko eta beharrezko ikusten dutenez, «tabernetan aurkitzen ez diren osagaiak» topa daitezke: «euskeraz uler-tzea, gure amalurra zapaltzerik ez onartzea, emakume eta gizonen arteko harreman parekideetan sinestea, sozialismo gorriaren indarra...».

Bestalde, jaia dirua eta handikeriarekin ez dutela lotzen, «beste batzuek bezala», eta «jai kristauak alde batera utzi eta benetako jai herrikoiak» bultzatzen dituzte.



Atzo arratsaldean egin zuten txosna gunearen irekiera. E. EZEIZA

EIDER ELDUAIEN ▶ ANTOLATZAILEA

«Sanjoanetan gune herrikoiago bat sortzea da gure helburua»

Eider Elduaien (Tolosa, 1982) txosna batzordeko kidea da.

Nolatan aurten sanjoanetan txosnak jarztearen ideia?

Behar bat ikusten genuen aspaldian Tolosan, eta gure erantzun propioa eman nahi genion. Inauteriek kutsu herrikoia goa duten bezala, sanjoan oso festa ofizialak bihurtu dira, eta gune herrikoia goa sortu nahi genuke, parte hartzea eta elkarlana sustatuko duen gunea.

Zer eskaintzen dute txosnek?

Edonork parte hartzeko eta herriko taldeen artean elkarlana bultzatzeko gune dira. Ez dugu festa hutsa egitea bultzatzen, noski, festa garrantzitsua eta ezinbestekoa da, baina aldarrikapenak ere tokia izan behar duela uste dugu. Gazteok festa egiteko gogoia bai, baina zer esana ere badugulako gure inguruan gertatzen ari diren gauzen aurrean.

Abastosen kokatu dituzue. Bertan jarztearen ideia bat-batean atera zen, eta oso ona iruditu zitzaigun. Sanjoanetan hutsa egoten delako eta duen

kokapenagatik eta txosnak jar-tzen ditugun lehen aldia izanik, gauzak errazten zizkigulako.



N. LIZARTZA

Egitarauetik zer nabarmen-tzen duzue?

Sagardo kupela egongo da eta nahi duenak bokadiloekin-eta etor daiteke afaltzera. Horretaz gain, aldarrikapenak, musika... Ekitaldi ugari. ◀

EGITARAU ▶

GAUR

18:00. Globo gerra (eguraldi ona egiten badu).

19:00. txosnen irekiera txarangarekin.

20:00. kazerolada *Jai herrikoia eta parte hartzaileen alde, putxerazorik ez!* lelopean.

21:00. Afaria eta txob!

Gauean. Dj Bull-ek alaituko du giroa musikarekin.

BIHAR

18:00. Txosnen irekiera egingo dute.

00:00. Irrintzien lehiaketa

01:00. Dantza emanaldia izango da ikusgai.



GORA SAN JUAN!

Ondo pasatzea, parte hartzea, dantzan eta saltoka ibiltzea. Jaiak hori dena dira, eta askoz gehiago ere bai.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

AISIA ▶

Lehendabiziko aldiz Zerkausi eraberrituan izango da koadrilen arteko bazkaria

81 koadrilek eta 700 pertsona inguruk hartuko dute parte; honen ondoren, mahaitik altxa gabe, DJ Bullen emanaldia, zozketak eta ezustekoak izango dira

ESTI EZEIZA

Koloretako blusa eta alkandorak goizean jantzi eta kalera ateratzeko eguna da gaur. Urdin, gorri, berde, hori... jantzen dira gaurko egunez Tolosako kaleak, koadrilen eguna baita.

Urtero bezala, Tolosako zenbait koadrila arduratu dira gaurko egitaraua osatzeaz. Denara 81 koadrilek, 700 lagun inguruk hartuko dute parte bazkarian. Hasteko 11:00etan Bonberenea txaranga kalejira abiatuko da giroa berotzen joateko. Ondoren, 12:00etan koadrilak Plazan Berrian elkartuko dira eta bertan jatekoa eta edatekoa izango dute zain. Gainera, antolatzaileek dei berezia egiten diete koadrilei, zuzenean bazkaltzera joan beha-



Euriagatik, Ferialekuan izan zen joan den urteko bazkaria. MADDI SOROA

rrean, goizetik hurbiltzeko Plaza Berrira.

Larunbata izanik ohiko azoka egongo da Zerkausian. Hauek normalean baino lehenago bukatuko dute eta bazkarirako prestatzen hasiko dira Zerkausia. Hau izango da aurtengo koadrila eguneko berrikuntza nagusia, eguraldi ona nahiz txarra egin bertan izango baita. Aurreko bi urteetan, hasiera batean Plaza Berrian egiteko adostu bazuten ere, euria zela-eta Ferialekuan egin behar izan zuten. Koadrila antolatzaileek azaldutakoaren arabera, «Alde Zaharretik urruti geratzen da Ferialekua, horregatik, bazkaldu eta gero bakoitza bere aldetik joaten zen eta denak banatu egiten ginen». Aurten berriz, bazkalon-

EGITARAUA ▶

GAUR

11:00. Bonberenea txarangaren irteera.
12:00. Txupinazoa eta hamaiketako Plaza Berrian. Ondoren poteoa Alde Zaharrean txarangarekin.
14:00. Koadrilen arteko bazkaria Zerkausian. Bazkarian zehar hainbat ekitaldi eta DJ Bull.
18:00. Larrain dantza Solana kalean.
19:00. Mulambo eta Oria txarangaren kalejira.
00:00. Audience eta Estandar taldeen kontzertua eta ondoren dantzaldia goizaldera arte.

dorako musika emanaldia, zozketak eta beste ezusteko baztuz ere prestatu dituzte, honekin jendea denbora gehiagoan elkarrekin egotea lortu nahi dute. Berrikuntzen artean aipatu dute ere, kafearekin batera bazkal osteko kopa zerbitzatzeko dutela, «koadrilek bazkaldu ondorengo tertuliatxoa egin ahal izan dezaten».

Arratsaldean urtero bezala, Larrain dantza egingo dute, aurten koadrilen bazkaria Zerkausian dela aprobetxatuz, Solana kalean dantzatzeko dute. 19:00etan berriz, Mulambo eta Oria txarangarekin kalejira izango da herrian zehar. Egunari amaiera emateko, 00:00etatik aurrera Audience eta Estandar taldeen kontzertu izango da Plaza Berrian. Jarrera, dantzaldia.

Marcel IZAPANDEGINDO GARAK
EDERGINTZA Santa Clara, 9
TOLOSA 943 67 1938

XOILAN, S. L.
Telf.-Faxa: 943 67 06 26
659 04 57 65
Igarondo, 1-behea • TOLOSA

- garbiketa orokorrak lokal komertzialen mantenua
- bulegoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zuruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizen garbiketa orokorrean

ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR

PAGOLA ERAIKUNTZAK, S.L.

Izaskun Bidea, 7 behea
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80 **20400 TOLOSA**

ZABALA
KAFEAK

Nafarroa etorbidea, 2 • TOLOSA • 943 65 47 95
Nagusi enparantza, 2 • ORDIZIA • 943 88 29 88

MAIXINA Sanjoanak ondo pasa!!
Etxekotresna elektrikoaren konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

Intxurre
taberna
zabalik!

Herritarren borondatea errespetatu!

Tolosa

EUSKAL JANTZIAK
BORDATU PERTSONALIZATUAK
www.ganbarara.com

GANBARARA
EUSKAL DENDA

Gudari kalea, 16 - 20400 Tolosa - EUSKAL HERRIA
943670087 - ganbaratol@hotmail.com

Bridge
Language School

INGELESA Uztailen udako ikastaroak haur, gazte eta helduentzat
Ikastaro trinkoak "First" eta "Advanced" azterketak prestatzeko

943 650 070 Pablo Gorosabel 2 - 1A
680 222 526 20400 TOLOSA - Gipuzkoa
bridge2005@bridge2005.com www.bridge2005.com

ZERBITZU BULEGOA
AIXA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1.esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

GIZARTEA ▶

Udan Usabalgo sarrera ordaindu beharko dute Olaederrako bazkideek

«Haserre» agertu dira Tolosa Lantzen SAren erabakiaren aurrean, «ordaintzaile bezala eskubidea» dutela esanez



Tolosako Usabal kiroledegiko kanpoaldeko igerilekuak, iazko udako egun batean. N. LATABURU

NEREA URBIZU

Villabonako Olaederra kiroledegiko bazkideak «haserre» agertu dira Tolosako Udaletik Tolosa Lantzen SAK hartutako erabakiarekin, hain zuzen ere, udako kanpainan zehar Usabal kiroledegiko instalazioak erabili ahal izateko sarrera ordaindu beharko dutelako. Kirolzer enpresak kudeatzen ditu bi kiroldegia —beste hainbat herri-tako kiroldegiez gain— eta bazkideen txartelarekin Kirolzer berak Euskal Herrian dituen instalazio guztietan parte hartzeko abantaila eskaintzen du. Haatik, neurri honen ondorioz, abantaila hau bertan behera utzi dute Olaederrako

bazkideentzat, izan ere, Kirolzerrek kudeaturiko Euskal Herriko gainontzeko kiroldegietako bazkideek izango dute abantaila horretaz gozatzeko eskubidea. Tolosa Lantzenek azaldu duenez, «aforoa» da arazoa eta «mugatu behar izan dugu».

Tolosako Usabal kiroledegia Udalarena da, eta bertako jereentea eta Kirolzerreko langilea den Asier Martinen esanetan, «bat-batekoan harrapatu ditu bazkide guztiak erabaki honek. Baina Kirolzerrek Udalaren erabakiak onartu behar ditu, enpresaren gainetik baitago». Hartutako erabaki honek ordea ez du aintzat hartu Olaederrako bazkideak kalte-

tatu izan zitezkeela. Erabakia iazko udako datuak kontuan izanik hartu dute; «Tolosako Udalak Villabonatik zetozenen kopurua hartu du kontuan, bertan zenbatuta daude».

Villabonako Udalak eta Kirolzerrek, dirudienez, ez dute honen berririk izan, baina «bazkideen kexa ugari» ari dira jasotzen. Hori dela eta, biak ere «lanean ari dira» Olaederrako bazkideei irtenbide bat eman ahal izateko; «horretan ari gara», azaldu dute. Olaederrako bazkideek erreklamazioa aurkeztu dute, «bonua ordaintzen dugunez, instalazioak erabiltzeko eskubide guztia» dutela argudiatuz. «Exijentzia honek dudan jartzen du Tolo-

sako Udalaren partaidetza Kirolzer taldean», gaineratzen dute Olaederrakoek.

Erreakzioak

Egoera honen aurrean iritzi ezberdinak eta erreakzio ugari izan dira. Joxan Moskeira Villabonako kirol teknikariaren esanetan, «jendearen iritzirik jaso gabe hartu dute erabakia, ez Kirolzerrek ezta Villabonako Udalak jakin gabe. Arazoa aforoarena balitz ez lukete eskatuko ordaintzea, ez dauka zentzurik neurri honek, ordaindun gero jendea berdintasunik delako».

Tolosako Udalak, ordea, Kirolzer («jakinaren gainean») zegoela azaldu du, «maiatzean enpresako arduradunekin elkartu» zirela adieraziz. Hala, Asier Bakaikoa Tolosako kirol teknikariaren esanetan, «bile- ra otsailaren 13an egin genuen, kirol batzordekoak. Enpresa honen gainean egon da eta eredu ezberdinak ere eskatu dizkiogu. Egia da erabakia finkoa dela, nahiz eta protestak egon. Kirol zinegotziz aldatuko dugu, eta berria dagoenean bilera egiteko prest gaude: Villabonako Udalarekin eta Kirolzerrekin, noski. Ez da guk asmatutako formula izan, besteetan ere egin da horrelakorik».

Bazkide kopurua, mugatuta

Halaber, Tolosako Udalak Usabalgo bazkide kopurua zehaztea erabaki du. Orain 7.700 bazkide ditu Usabal kiroledegia, eta «gehiegia» izatearekin kiroldegia eskaintzen duen zerbitzua kolokan jartzeko

arriskua dago. Horregatik, «tolosarren mesederako» izango den neurria hartu du Udalak, hemendik aurrera kiroldegian Tolosan erroldatuak daudenean eman ahal izango dute izena. 7.700tik gora itxaron zerrenda osatu dute, bajaren bat dagoenean mugituko delarik. Usabalek udako bonoa ateratu du.

IDATZIAK ▶

TOLOSAKO UDALA

Oharra. Tolosako Udalak adostutakoaren gainean, Olaederra kiroledegiko bazkideei jakinarazi nahi die, ekainaren 15etik irailaren 23ra bitartean ezingo dituztela Usabal kiroledegiko instalazioak erabili, sarrera eguneko edo udako abonua ordaindu beharko dutelarik.

OLAEDERRAKO BAZKIDEEN ERREKLAMAZIOA

Azalpena. Tolosako Udalak hartu duen erabakiaren aurrean eta udako kanpaina barruan Usabalgo instalazioak erabili ahal izateko ordaindu beharra izanik, Olaederra kiroledegiko erabiltzaile eta abonatuak garenok instalakuntza horien erabileraren eskubidea dugula uste dugu urteko abonoz gain ordaintza berezirik egin gabe. Exijentzi honek zalantzan jartzen du Udal honen partaidetza Kirolzer taldean. **Eskatzen du.** Abisu edo udal bando berri bat egitea Kirolzerreko abonatuak udako ordaintza gehigarri horretatik kanpo gera dadin.

TOLOSA ▶


HITZA Pilota Txapelketako azken finalak

Beotibarren bihar, 10:00etatik aurrera IV. HITZA Pilota Txapelketako lau finalak izango dira. Lehenik Ezkurdia eta Jauregi kadeteak banaka. Segidan, Galartza-L. Gebara eta Eskudero Sagaseta jubenilak. Ondoren Iratzusta-Telletxea eta Muguruza-Mitxelena etorkizunekoak, eta bukatzeko senior mailako Ongai-E. Galarraga eta Renobales-I. Bengoetxea.

ALEGIA ▶

Txintxarrikoen kamisetak salgai, suen ondoan

Alegiko Txintxarri abesbatzak 50 urte beteko ditu 2010ean. Ospatzeko ekitaldi ugari egitea aurreikusten du Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak. Besteen artean, kamisetak bihar izango dira salgai suen ondoan, plazan. Kukuxumusu ikurra daramate, hainbat kolore eta neurritakoak dira eta abesbatza baten irudi deigarria ikus daiteke, 15 euroren truke.



Marrazki bizi hauek izango ditu kamisetak. HITZA

ALEGIA ▶

Festetarako txistulariei egindako deialdia

Alegiko jaien ospakizuna dela eta, jai batzordeak herriko txistularien kalejira bat antolatu nahi du, uztailaren 15erako. Horretarako, bilera bat antolatu dute: hilaren 29an, ostiralean 20:00etan, Inaxio Begiristain Kultur Etxean. Helburua partituren banaketa eta entsegua egitea izango da. Herriko txistulari guztiak bilera parte hartzeko gonbidatuak daude.

MIKEL OLAETXEA ▶ ASEGARCEKO AURRELARIA

«Profesionaletan ahulenak ere gogor asko ematen dio pilotari»

Gaur hasiko da profesional mailan, eta urduri dago; betiko ametsa dela aitortu du, baita erantzukizuna handia ere

IMANOL MAGRO (Berria)

Arnedillon lau egun gozo pasatu ostean, gaurko partidaren buru-belarri pentsatzen hasia da. Mutil urduria da, baina badu hitz-jarioa. Mikel Olaetxek (Lizartza, 1985) urtebete daruma profesionalekin entrenatzen, eta asko ikasi duela dio, baita partidak ikusiz ere. Beotibarrera astelehenero joaten da, eta, jokatzear gain, gazte batzuk entrenatzen ditu Tolosan, Bellosorekin. Iaz mekanikari modulu bat bukatu zuen, eta irailerako kirol arloko ikas-taro bat hasia darabil buruan. **Ezer baino lehen, azaldu ieza-dazu bitxikeria: ezkerre zara, baina eskuinarekin sakatzen duzu. Nolatan?**

Hala da. Kanpotik ikusita, bitxia dirudi, baina nik hala egiten dut. Idatzi, jokatu eta beste guztiak ezkerrez egiten ditut, baina sakatu, eskuinez. Pauso, bote eta bestelakoak eskuinez sakatzeko egiten ditut, gainera.

DEBUTA

«Kontrarioak oso indartsuak dira: Belokik ziztua du eta Urrizelkik, berriz, eskuin bikaina»

ARDURATUTA

«Barregarri geratzeko beldurra hor dago baina partida ona egitearekin gustura geratuko nintzateke»

GABEZIA

«Ezkerre naizen aldetik agian eskuina da nire alde okerrena pilotan, kolpe aldetik, batez ere»

Txikitatik sakatu dut eskuinez. Beti hala ikusi izan dudalako izango da agian.

Zer moduz zaude? Urdurita-sunik bai?

Jokatze gogoz nago, baina urduritasuna sumatzen dut. Azken egunetan burua arintzeko aukera izan dut, baina orain lehen partidaren baino ez dut pentsatzen.

Noiz jakin zenuen debutatuko zenuela?

Bi hilabete dira esan zidatela, baina eguna eta kontrarioak aste honetan jakin ditut.

Luzea egin al zaizu itzarrotea?

Bai. Debutatzea aspalditik nuen ametsa zen, eta bai, bi hilabeteak luzeak egin zaizkit.

Profesionaletan hasia zer da gehiago, aukera ala erantzukizuna?

Biak bat. Aukera handia da, betiere lan asko egiten bada, baina erantzukizuna ere ez da txikia.

Zer moduzkoa izan da kontzentrazioa?

Polita, enpresako jende asko bistaz ezagutzen nuen eta egun hauetan eurekin hitz egin eta ezagutzeko aukera izan dut. Oso pozgarria.

Ez daramazue bizimodu txarra.

Ez, ez da txarra, hainbat entrenamendu eta lan saio egin behar izan ditugu, baina oro har gustagarria izan da.

Zenbat denbora daramazu profesionalekin entrenatzen? Urtebete inguru daramat Anizeto Lazkanorekin, hasieran hamabostean behin, gero astero eta halaxe.

Lazkanok errietarik egiten al dituz?

Errieta ez, baina beti da ona norbaitek gidatzea. Bera gainera dago, eta denetarik esaten dit, ez gauza konkretu bat bereziki.

Zein da zure gabezi nagusia? Ezkerre naiz, eta agian eskuina, kolpe aldetik batez ere.

Saloetan norbaitek harritu al zaitu?



ASEGARCE

Hasieran profesional gehienek harrizten ninduten, baina denbora pasatu ahala ohitu egin naiz. Hor daudenak zerbaitegatik daude, denak dira onak, eta punta-puntakoak urrun daude oraindik.

Tolosan Unanue aritzen da hasiberriak xaxatzen, zu ere bai?

Hor ibiltzen gara, bai. Berarekin gustura egiten dugu lan, estutu egiten gaitu eta guretzat ona da. Konfiantza handia ematen digu.

Debut polita duzu: Mendizabal II. arekin, Beloki II. arekin eta Urrizelkiren aurka.

Kontrarioak indartsuak dira:

Belokik ziztua du, eta Urrizelkik, eskuin bikaina. Alboan Oier izango dut eta oso gustura nago. Atzelari handia da eta ziur lagunduko didala.

Zerbaitek arduratzen zaitu bereziki?

Barregarri geratzeko beldurra beti dago hor, baina tira, ni partida ona egitearekin gustura geldituko nintzateke.

Hiru partida dituzu lehen sei egunetan, ez da ohikoa hasiberrietan.

Ni ere harritu ninduen. Debutaren aurretik atzetik zetozen bi partidak ezagutzen nituen. Aurreneko partida polita bada, on egingo dit; txarra irteten

bada, ordea, nire kalterako izango da.

Txarra irtenez gero ere hobe, bi egunetara duzu konpontzeko aukera.

Hala ere izan daiteke, baina partida bat konfiantza gabe bukatzen baduzu, zaila da bi egunetan errekupeatzea.

Aldi handia sumatu duzu profesional eta afizionatuen artean?

Bai, sumatu dut, baina afizionatuetan oso maila ona dagoela nabarmendu nahi nuke. Baina bai, profesionalak beste mundu bat dira. Hor ahulenak ere gogor asko ematen dio pilotari.

ARESO ▶ SOKATIRA



Areson lehengo urtean 560 kilotako kategorian zilarrezko domina lortu zuen Areso taldeak. J. ASTIBIA

Euskal Herriko Txapelketako 640 kilotako finala, gaur

Goiherri, Gaztedi A, Areso, Mutriku eta Gaztedi B lehiatuko dira 17:00etan, plazaren ondoko zelaietan

NAIARA GARZIA

Gaur Euskal Herriko Lur Gai-neko Sokatira Txapelketaren finala izanen da Areson, 640 kilotako kategorian. 14:00etatik 15:30era pisaketa eginen dute eta txapelketa 17:00etatik aurrera burutuko dute. Goiherri, Gaztedi A, Areso, Mutriku eta Gaztedi B izanen dira gaur lehiatuko diren taldeak. Liga sistema denez, larunbateko emaitzak kontutan hartuta, puntu gehien lortzen dituen taldeak eramane du txapela.

640 kilotako kategorian jokatzen duten hirugarren eta azken jardunaldia izanen da gaurkoa. Maiatzaren 27an jarri zen abian txapelketa hau, Bizkaiko Laukiz herrian, eta bigarren jardunaldia Martiartun (Bizkaia) egin zuten. Aresok 3 puntu lortu zituen lehengo jardunaldian. Bigarren jardunaldian, aldiz, 2 puntu lortu zituen. Mutrikuk lehengoan 2 puntu lortu zituenez, eta bigarren jardunaldian 3, bosna

puntu dituzte bi talde hauek, eta hirugarren postua partekatzen dute beraz.

Josu Etxezarreta Aresoko entrenatzaileak azaldu duenez, «aur ten taldeko hainbat kide berriak dira eta hori asko nabaritzen da. Aldaketa hauekin

taldea oraindik heldu gabe dago». Honetaz gain, pisaketa ondoren egiten den zozketaren garrantzia azpimarratu du. «Zozketak txapelketa neurri handi batean baldintzatzen du eta gora-beherak eragiten ditu».

640 KILOTAKO KATEGORIA ▶ SAILKAPENA

LAUKIZ, 07/05/27

Goiherri. 4,5 puntu.
Gaztedi A. 4,5 puntu.
Areso. 3 puntu.
Mutriku. 2 puntu.
Gaztedi B. 1 puntu.

▶ Jardunaldi honetan izan zen kategori honetako lehengo berdinketa, Goiherri eta Gaztedi A taldeen artean.

MARTIARTU, 07/06/17

Goiherri. 5 puntu.
Gaztedi A. 4,5 puntu.
Areso. 2 puntu.
Mutriku. 3 puntu.
Gaztedi B. 1 puntu.

▶ 2 jardunaldi hauek eta gero, Areso eta Mutriku berdinduta doaz. Hirugarren postua partekatzen dute.

BANAKETA ENPRESA batek:

- Banatzaileak behar ditu, Hernani aldean.
- Bestalde, udako ordezkapenak egiteko banatzaileak behar ditugu, bereziki Oarsoaldean, Bergaran, Zumaian eta Busturian.

Lan-baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Egunean 4 ordu.
- Bi aste lan, bat jai.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbailehen telefono honetara 943 30 43 41

PERTSONA BAT BEHAR DA FRESADORAN LAN EGITEKO ASTEASUN.
DEITU: 652 72 41 69

LEITZA ▶ JAIK

Plazaola aldizkarian parte hartzeko deialdia

Azalaren lehiaketa antolatu du Aurrerak eta gertakizunak, txisteak... ere bidali daitezke



1980. urtean atera zen lehengo alea, egunkari formatoan. J.A.

ERREDAKZIOA

Aurtengo festetako Plazaola aldizkarian edozein herritarrek parte hartzeko aukera luzatu du Aurrerak. Horretarako, alde batetik Plazaola aldizkariaren azalaren lehiaketa antolatu dute, eta bestetik, gertaera zaharrak, kritikak, txisteak, komikiak eta horrelakoak jasotzeko deialdia zabaldu dute.

Aldizkariaren azalaren lehiaketari dagokionez, lehiaketaren gaia Leitzako festak izan beharko dute, eta Leitzan bizi den jendeak soilik har dezake parte, bakoitzak gehienez bi lan aurkeztuz. Lan hauek ekainaren 29ra arte aurkeztutako lan guztiakin erakusketak eginen da bertan, uztailearen 1ean.

Kartelak gehienez 50x65 zentimetrotakoak izanen dira, eta 4 koloretakoak. Lanak aurkezteko orduan ere, zenbait arau badaude: lan guztiak sinadurarik gabe joan beharko dute, eta parte-hartzaile bakoitzak bereari atzeko aldean izenburu edo deitura bat jarri-

ko dio. Lana aurkezteko orduan, lanaz gain, bakoitzak gutunazal bat eman beharko du. Gutunazalaren gainealdetan lanaren deitura jarri beharko da eta barruan, orri batetan, bakoitzak bere izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jarriko ditu.

16 urtetik beherako partaideen karteletan honako testu hau agertuko da: Plazaola-Leitzako aldizkaria - 29. zenbakia. 17 urtetik goakoetan, berriz, ondorengo hau: Leitzako 2007 - Tiburzio Donearen Pestak - 29. zenbakia. Hitzaren orde-na alda daitezke.

Epaimahaia Aurrerako 6 bazkideek osatuko dute eta bi sari egonen dira. 16 urtetik beherako irabazleari sari bat emanen zaio San Tiburzio egunean. 17 urtetik gorakoari 150 eurotako saria banatukozaio egun berean. Lan hauek Aurreraren esku geldituko dira.

Bestalde, gertaera zaharrak, txisteak eta horrelakoak ere bidali daitezke Aurrerara ekainaren 29a baino lehen. Bidaltzerakoan izen-abizenak jartzea beharrezkoa da.

h

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

h

Praktikak HITZAn irailtik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziaturretako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
(uztailaren 15a baino lehen)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Abaltzisketa. San Joan jaien barruan, bihar VIII. Zaldi Lasterketa izango da Amezketatik abiatuta (2,5 km). Izen-ematea, 605 756743 telefono zenbakian.

Alkiza. 18:00etan IV. Aiztondoko Argazki Rallyaren sari banaketa eta erakusketa Alkizako kultur etxean izango da.

Tolosa. Sanjoanek: Koadrillen Eguna: Bonberenea txaranga 11:00etan; 12:00etan txupinazoa plaza Berrian; 14:00etan bazkaria Zerkasian; Dj Bull; Larrain dantza 18:00etan; Oria txaranga eta Mulanbo; Audience eta Standar musika taldeak eta berbera. 09:30ean Beotibar pilotalekuan, XVI. San Joan Zesta-Punta Txapelketa; 10:00etan Usabal kiroldegian, igeriketa probak, XXXIX. San Joan saria; 16:00etan Txirindulariak, Agustin Urkola 2. urteko kadeteen proba. 10:30ean haurrentzat entzierroa, irteera Abastos plazatik; 11:00etan erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin Plaza Zaharretik; 18:00etan Sortzez Garbia plazan haur ikuskizuna Niko eta Periko.

Tolosa. Datorren ikasturterako matrikula irekita Udala Musika Eskolan, 09:30etik 13:00etara.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43.112
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK!

Hemendik aurrera, parrandak ahaztu beharko dituzue bikoteari denbora gehiago eskaintzeko. Hori dio ezkontzaren legeak ezta? Zorionak Joseba eta Oihana!!



ZORIONAK

Teo. Gaur bai parranda earra, eh? Zu bai parrandera... Zorionak bikote, eta ondo ospatu. Inturreko nesken partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea



URTE ASKOAN

Iker.
Aupa Iker! Zorionak etbekeen partetik.

ELECTRICIDAD ELUSTONDO

- Argiztapena
- Inst. Elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika ambientalarentzat instalazioak, etxebizitza, denda..

lurre Auzoa, 4 • TOLOSA • Telf.: 943 67 23 00
 Nafarroa etorb, 13 • Telf.: 943 88 95 71 • BEASAIN

E.S. ARRIARAN S.L. **AVIA**

Txartel berriaren abantailak goza itzazu!

XL

ZORIONAK TOLOSA

SANJOANETAN

EUSKARAZ BIZI

1924

ECEIZA
TOLOSA

TEILAK ETA ZIGARROT XOAK

PABLO GOROSABEL, 34 • TEL.: 943 655161 • SAN FRANTZISKO, 8 • TEL.: 943 651916 • TOLOSA